

H200 - GOI-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN PRAKTIKOA

H-200 (11-12-13)

(11) LAGUNARTEKO ERREGISTROEN LANKETA

(12) JENDE AURREAN NOLA HITZ EGIN

AHOSKERA JASOA, NOLA IRAKURRI TESTU BAT, AHOSKATZE OKER
BATZUEN ZUZENKETA.

DEFINIZIOA:

(11) Maila formalez haratagoko diskurtsoei erreparatzea. Klasetik kanpokoak, gazteen artekoak...

(12) Zuzentasuna eta egokitasuna ahozko diskurtsoan.

(13) Hizkuntzaren zuzentasun-arauak, hitzez. Boz gorako irakurketa zuzena: hitzen ebakera eta hitzarten doinuera zaindua.

IRAUPENA:

(11-12-13) 30 ordu.

HELBURUAK:

(11) Ikasgelako euskara estandarretik aldentzen diren ereduez jabetzea. Hizkera ñabardurez aberastea.

(12) Ahozko diskurtsoan egiten diren ohiko akatsei erreparatzea eta zuzentzea. Komunikazioa errazteko bide egokiak proposatzea.

(13) Ikasketarien ahoskatze okerrak zuzendu eta boz gorako irakurketan trebatzea.

EDUKIAK:

(11) Zenbait hitz eta esamolde berezi. Hitanoa.Ume –hizkera...

(12) Inventio.Dispositio. Elocutio. Memoria.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



(13) EBAZ. Diptongoak eta hiatok. Euskal azentua. Prosodia. Intonazioa

METODOLOGIA:

(11) Egoerak eman eta banaka, binaka... e.a. jarrita, ahozko lanari ekin. Zuzenketak *a posteriori* egingo dira, grabatutakoa ere horretarako lantresna izango baitugu.

(12) Ikasle bakoitzak komunikazio helburu ezberdineko gaiak azalduko ditu besteen aurrean. Zuzenketak taldeka nahiz bakarka egingo dira, azken hauek grabazioen bidez.

(13) Egokiro ahoskatzeko arauak, boz gorako irakurketaren bitartez landuko dira. Taldeka nahiz banaka. Grabazioak ere erabiliko dira eredu gisa eta zuzentze aldera.

EBALUAZIOA:

(11-12-13) Ebaluazio jarraia.

Hasierarako: IRALEk jardunbide-txostenean adierazitakoari jarraiki, ikastaro honetan parte hartzeko ikasketariak HE2, EGA edo azken honen baliokide izan behar du.

Amaierarako: ikasketariaren egunez-eguneko jardueran oinarrituko da irakaslea ebaluazioa egiteko.

IKASTAROA NON-NOIZ:

(11-12-13) Euskaltegian bertan (ikus egutegien eranskina). Euskaltegitik kanpo ere bai, hala eskatuz gero.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



H-200 (14-15)

IDAZMENA III'. ESKUTITZAK, BILERA DEIAK, OHARRAK

(15) IDAZMENA IV'. TXOSTENAK, IRITZI ARTIKULUAK

DEFINIZIOA:

(14-15) Goi-mailako hizkuntza gaitasun praktikoa (beregaintasun-maila, euskara idatziz zuzen eta egoki jarduteko gaitasun funtzionalari dagokionez).

IRAUPENA:

(14-15) 20 ordu

HELBURUAK:

(14-15) Testu konkretuak sortzeko baliabideak bereganatu, beti ere egokitasunari eta funtzionaltasunari erreparatuz. Testuak berak aztertu eta ezaugarriak bereizten ikasi.

EDUKIAK:

(14-15)

TESTU-ERAK: azalpena, eredia eta ariketa praktikook.

OHARRAK

BILERA-DEIAK: gurasoei, langileei, eskola kontseiluari...

GUTUNAK: zerbait bidaltzekoak.

zerbait eskatzekoak.

zerbait jakinaraztekoak.

IRITZI ARTIKULUAK : lineala; eklektikoak.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



TXOSTENAK: Informazio zehatza eta azkarra ematekoak (laburrak). Gaiari buruzko datu guztiak egitura jakin baten barruan ematekoak (luzeak).

METODOLOGIA:

(14-15) Ikasketarien lanari dagozkion testu ereduak erabiliko dira, haien behar dituzten baliabideak antzeman eta berenganatzeko, eta hala, askotariko idazkiak sortu ahal izateko.

Ikastaro honetan jarraitu beharreko ereduak erabat praktikoa izango da, hau da, ikasketariak eurek sortu behar dituzte testuak. Testu horien gainean lan egingo da, ahal dela, modu pertsonalizatuan. Beraz, ikasketari bakoitzaren jarraipen zuzena egingo da. Testu guztiak bildu egingo dira

EBALUAZIOA:

(14-15) Ebaluazio jarraia ikasketariaren eguneguneko jardueran eta testu ekoizpenean oinarrituta.

IKASTAROA NON-NOIZ:

(14-15) Euskaltegia bertan edo euskaltegitik kanpo, hala eskatuz gero.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



H-200 (16 eta 17)

DEFINIZIOA:

(16) Goi-mailako hizkuntza gaitasun praktikoa (beregaintasun-maila, euskara idatziz zuzen eta egoki jarduteko gaitasun funtzionalari dagokionez) deskripzioak eta kontaktak identifikatu, aztertu eta sortzeko.

(17) Goi-mailako hizkuntza gaitasun praktikoa (beregaintasun-maila, euskara idatziz zuzen eta egoki jarduteko gaitasun funtzionalari dagokionez) testu literarioak identifikatu, aztertu eta sortzeko.

IRAUPENA:

(16 17) 20 ordu

HELBURUAK:

(16) Deskripzioei dagokienez, alde batetik, deskripzio motak aztertu eta testu konkretuak jorratzea:

- objektu, leku eta pertsonen deskripzio fisikoa.
- deskripzio psikikoak (egoera psikologikoen, izaeren eta sentipenen deskripzioak).
- prozesuen deskripzioa: nola egiten den, nola funtzionatzen

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



duen, nola erabiltzen den, nola lortzen den...

Beste aldetik, deskripzio dimentsioak aztertu eta testu konkretuak jorratzea:

- goitik beherakoa.
- zeharkakoa.
- hirugarren dimentsioa.
- denboraren dimentsioa.

Kontaktetara dagokienez, haren ezaugarriak dituzten testu konkretuak jorratzea:

- gertaeren sekuentziak denboraren arabera.
- gertaeren sekuentziak errealak eta testuak.
- kontaktetara oinarritutako egitura: aurkezpena edo hasierako egoera, korapiloa edo indar desorekatzailea (arazoa), gertaeren garapena (ekintzak), indar orekatzaileak (ondorioa) eta konponbidea (bukaerako egoera berria).
- kontaktetara egitura nahasia

(17) Zerk egiten duen testu bat literario. Zerk ematen dion literaturatasuna. Zertan bereiz daitezkeen ez-literarioetatik.

Testu literario mota desberdinak ikusi (generoaren arabera: eleberria, poesia, antzerkia...), aztertu eta sortzea.

Estiloaren araberako testuak ikusi (poetikoak, errealista, esperpentikoak...), aztertu eta sortzea.

Tonuaren, ikuspegiaren, pertsonaiaren... eta abarren araberako testuak ikusi (tonu intimista, ume, gazte edo zahar hizkera, zoro ikuspegia,...), aztertu eta sortzea.

EDUKIAK:

(16) Zenbait testu-eraren ereduak aztertu eta landu:

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



-deskripzioa (foiletoak, inprimakiak, egitarauak, hiztegieta-
definizioak, argazki-oinak, lan-hitzarmenak, lan-eskaintzak,
isunak, ziurtagiriak, iragarkiak, txartelak).

-ikasketariak lanean bereziki lantzen duten testu-era ikusi eta
aztertu.

-kontaketa (albisteak, pasadizoak, erreportajeak, historia
kontakizunak, alegiak, kondairak, biografiak).

Testu horietako adierazpide linguistiko-testualak aztertu:

-deskribapena: adjektibo kualifikatiboak (atzizki adjektibatzaileak:
-garri, -tar, -dun, -ti, -tsu), konparaketa (graduazioa), aditza
(denbora: orain eta lehenaldia, aspektua: ez-burutu puntukaria,
ez-burutua eta burutua), dimentsio-adierazleak (goitik beherako
dimentsioa: goi-behe, azpi-gain, ipar-hego...; zeharkako
dimentsioa: ezker-eskuin, alde bat-beste alde, mendebalde-
ekialde...; hirugarren dimentsioa: gertu-urrun, aurre-atze, barru-
kanpo...; denboraren dimentsioa: orduak, egunak, hilabeteak,
denborazko lokailuak...) eta objektuen xedea eta izaria
adierazteko (xedea: -tzeko, erlatiboa: -n)

-kontaketa: NORK edo NOR den gertaeraren egilea,
NORI zuzendua, NON eta NOIZ gertatua, eta NOLA
gertatua; orain eta lehen aldiko gertaerak (burutuak,
ez-burutuak eta ez-burutu puntukariak), kontaketa-
adierazleak (sarrera: behin, behin batean, egun batean...;
erritmo-aldatzaileak: berehala, bat-batean, halako
batean, orduan...; aldi-antolatzaileak: hurrengo
egunean, biharamunean...), norbaiten esanak, usteak,
galderak, gogoak... adierazteko estilo zuzena eta zehar
estiloa, denborazkoak: -nean, eta gero, ondoren, baino
lehen, aurretik, -tzean, arte, bezain laster, bitartean,
-n bakoitzean, -n guztietan...

(17) Testu literario motak: narrazioa, poesia, antzerkia, eleberria,...
Kontakizuna gauzatzeko foko literarioen adibideak: narratzaile
orokaituna, partziala, fidagaitza, hiperrealista,...

Genero literarioen egitura klasikoa versus egitura modernoa.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



Kontzepzio literarioaren ikuspegi klasikoa versus ikuspegi modernoa.

METODOLOGIA:

(16) Ikasketarien laneko testuak erabiliko dira. Ikastaroa hasi aurretik eskuratzea komenigarria izango litzatekeen arren, hasi bezain pronto aipaturik eta ikasleei klasera ekartzeko enkargua eginda ere ez legoke arazorik. Euskara idatziz zuzen eta egoki jarduteko gaitasun funtzionala jorratze aldera.

Ikastaro honetan ikuspegi teorikoa erabat baztertzea ezinezkoa delarik ere, funtsean jarduera praktikoetara pasatuko gara hastearekin batera. Ikastaro honetan, beraz, zuzen-zuzenean jarduera praktikoei ekitea aurrikusten da. Ikasketariak lanerako erabiltzen dituzten idazkiak eredutzat hartuz, berorien egokitasuna aztertuko dugu: beharrezkoa balitz zuzenketak eginez, eredu hobeak proposatuz eta landuz.

Ikasketari bakoitzak lanean behar duen testu-era jorratuko da. Arlo horretan lan pertsonalizatua erabiliko dugu, eta ikasketari bakoitzaren idazkien jarraipen zuzena egingo da.

(17) Gogoan harturik testu literarioek eztabaidarako, iradokizun desberdinetarako zein pertzepzio anitzetarako bidea eskaintzen dutela, berorien lanketa honela gauzatuko da:

- testuak ikusi, irakurri eta lagunarteko giroan komentatu.
- testuak kritikoki aztertu.
- Ariketa laburrak ikasketariak testu berriak sortzeko: giotzea edo egoera emanda, gaia jarrita, pertsonaia baten ikuspegia hartuta, egitura jakin bati eutsita, hasiera edo amaiera errespetatuta... Ostean, ikasketarien euren ekoizpena letorke.

EBALUAZIO-BIDEA:

(16-17) Ikaslearen egunez eguneko jardueran oinarrituko da irakaslea ebaluazioa egiteko.

Hasierarako: IRALEk jardunbide-txostenean adierazitakoari

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



jarraiki, ikastaro honetan parte hartzeko ikasketariak HE2 ,
EGA edo azken honen baliokidea izan behar du.

Amaierarako: ikasketarien egunez eguneko jardueran
oinarrituko da irakaslea ebaluazioa egiteko.

IKASTAROA NON-NOIZ:

(16-17) Euskaltegian bertan (ikusitako egutegiaren eranskina).
Euskaltegitik kanpo ere bai, hala eskatuz gero.

H-200 (18)

(18) IRAKURRIZ HOBETU

DEFINIZIOA:

Zenbait testu irakurrita norberaren euskara aberastea, bai lexiko, bai
bestelako errekurtso komunikatiboan aldetik.

IRAUPENA:

20 ordu.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



HELBURUAK:

Irakurtzeak eskatzen duen lan pertsonal gogorra taldearen laguntzaz leuntzea.

EDUKIAK:

Taldeak aukeratzen dituen testuak, literarioak nahiz teknikoak.
Prosodia unitatea: hitz kateak eta etenaldiak; mintzagaia eta galdegaia.
Intonazioa: doinu aldaketa; puntuazioa eta doinua.

METODOLOGIA:

Etxean irakurritako testuak klasean komentatu. Zalantzak argitu.
Irakasleak proposatutako zenbait ariketa burutu.

EBALUAZIO-BIDEA:

Ebaluazio jarraia.

IKASTAROA NON-NOIZ:

Euskaltegian bertan eta
Euskaltegitik kanpo ere bai, hala eskatuz gero.

H-200 (19-20)

(19) ULERMENA ZABALTZEN. BESTE EUSKALKIAK.

ULERMENA ZABALTZEN. ERREGISTRO EZBERDINAK : KULTURA ETA
ADINAREN ARABERAKO EREDUAK.

DEFINIZIOA:

(19) Beste euskalkietan idatzita dauden zenbait testu lantzea.

(20) Igorle ezberdinek komunikatzeko erabiltzen dituzten erak lantzea.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



Norberaren eremutik ateratzen diren hizkuntza baliabideez jabetzea

HELBURUAK:

(19) Norberarena ez den beste edozein euskalkirekin dugun arrotz sentiazioa gainditzea.

(20) Zenbait hitzuni ulertzeko ditugun zailtasunak gainditzea, nola adinagatik, hala arrazoi soziolinguistikoengatik

IRAUPENA:

(19-20) 20 ordu.

METODOLOGIA:

(19) Taldeak aukeratutako testua irakurri ahala euskalki edo azpieuskalki horren ezaugarriak azalduko zaizkie ikasleei.

(20) Grabazio batzuk entzun eta ez-ulertzearen arrazoiak aztertuko dira: lexikalak, intonaziozkoak, laburdurak, erreferentzia kulturalak, euskalkienak ...

EBALUAZIOA:

(19-20) Ebaluazio jarraia.

Hasierarako: IRALEk jardunbide-txostenean adierazitakoari jarraiki, ikastaro honetan parte hartzeko ikasketariak HE2, EGA edo azken honen baliokiderik izan behar du.

Amaierarako: ikasketariaren egunez-eguneko jardueran oinarrituko da irakaslea ebaluazioa egiteko.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



IKASTAROA NON-NOIZ:

(19-20) Euskaltegia bertan (ikus egutegien eranskina).
Euskaltegia kanpo ere bai, hala eskatuz gero

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org

